



Aurkibidea

Gardentasunaren aldeko Euskadiko Udalen Sarea

Gardentasunaren Aurrera egiteko material erabilgarriak

Albisteak

Ezperientziak

Ekitaldiak

Hurrengo hitzorduak

Argitalpenak

- Kideak eta sartu berriak **2. orr.**
- Tailerra: "Tamaina txiki eta ertaineko udaletan Gardentasuna Hobetzea" **2 orr.**
- EUDELeK eta IVAP/HAE EK Gardentasunari buruz antolatutako Ikastaroaren I. Edizioa **3 orr.**

- "Udal gardentasuna abian jartzeko eta kudeatzeko gida" **3. Orr.**

- Etorkizuneko Euskal Administrazioari buruzko Legea **4 orr.**
- Europan ustelkeriaren inguruko kezka gero eta handiagoa da **4 orr.**
- Europako enpresa handietan Gardentasuna hobetzea **5. orr.**
- IPAR -Legebiltzarren Gardentasunari buruzko Indizearen- hasiera. **5. orr.**

- Euskadiko Udalak: Herritarrekiko harremanetarako bide berriak **6.orr.**
- Euskadiko Udalak: Gardentasun Handiagoa informazio ekonomiko-finantzarioan **7. orr.**
- Gardentasunari buruzko Webguneak Salamancako udalerrri txikietan **7. orr.**

- "Gardentasuna eta Datuen babesa" **8. orr.**
- Eusko Jaurlaritzaren Gardentasunari buruzko ereduaren Senatuan aurkeztu zen. **8. orr.**


- "Hiriaren eredu berri baterantz" izeneko Jardunaldiak. Ermuko Udala. **9. orr.**
- Herri Administrazioen Kudeaketaren Bikaintasunari buruzko V. Biltzarra **9. orr.**
- Mintegia: Herritarrekin komunikatzea eta Europan nahiz bere estatuetan eraldatutako sektore publikoan konfiantza berrezartzea": **9. orr.**
- Demokraziaren Munduko Foroa eta Europako Kontseiluaren Tokiko Demokraziaren Astea **10. orr.**

- Nazio Batuek Latinoamerikarentzat prestatutako "Gobernu Plan Irekia" Gida. Argitalpena: 2014ko martxoa **10. orr.**

Gardentasunaren aldeko Euskadiko Udalen Sarea

2013ko urtarrilean eratu zenetik, Gardentasunaren aldeko Euskadiko Udalen Sarea udalei esperientzia, estrategia, metodologia, tresna eta materialak elkarri trukatzeko espazioa eskaini die, Gardentasuna gure udaletako gobernu eta administrazioetan hobetzeko xedez.

Gaur egun, eta azken udalerrria (**Balmaseda**) sartu eta gero, dagoeneko **Euskadiko hiru Lurralde Historikoetako 26 udalek eta Mankomunitate batek osatzen dute.**



Tailerra: "Tamaina txiki eta ertaineko udaletan Gardentasuna Hobetzea"

Pasa den otsailaren 27an EUDELek **tamaina txiki eta ertaineko udalez osatutako talde murrizt batekin** (Gueñes, Mungia, Ugao-Miraballes eta Zamudio) **lan-tailerra antolatu zen**, udaletan gardentasuneko praktikak txertatzeko, Sareko kideen udal txikiak zein oztopo aurkitzen ari diren identifikatzeko eta udal gardentasunean apurka-apurka balizko soluzioak proposatzeko asmoz.

Udalen parte-hartzea politikoa zein teknikoa izan zen eta, gardentasunari dagokionez, orokorrak diren gaiak jorratu zituzten: udal antolakuntzan bertako gardentasunari buruzko sentsibilizazioa, gardentasuna lantzeko giza-baliabide espezifikorik eza eta beharrezko euskarri teknologikoak.

Gardentasunean aurrera egiteko dauden arazo eta beharizanei buruzko gaiak bateratzearen aldeko hautu horren ondorioz, **plantilla-ereduak prestatzen ari dira** udalei eskura dagoen informazio ekonomiko-finantzarioa prestatzen laguntzeko asmoz, betiere modu antolatu zein ulergarrian, gardentasunez argitaratu ahal izateko.

EUDELek eta IVAP/HAEEK Gardentasunari buruz antolatutako Ikastaroaren I. Edizioa

EUDEL, IVAP/HAEE eta Foru Aldundien Zeharkako Prestakuntza eta Tokiko Zuzendaritza Publikoko planen barruan, Gardentasunari buruzko ikastaro espezifikoa antolatu da, hurrengo izenburupean: **"GARDENTASUNA: LEGEZKO OBLIGAZIOA ETA HERRITARREKIN HARREMANETAN JARTZEKO AUKERA. Nola hasi eta hobetu udal gardentasunaren alorrean"** . 9 udalerritako 9 lagunek parte hartu zuten.



Lau saioetan hurrengo alderdietan sakondu zuten:

- Gardentasunari buruzko Lege berriaren ondoriozko **obligazioak**.
- Gardentasunak Gobernu Onaren izenean eskaintako **aukerak**.
- Udaletan Gardentasuna ezartzeko eta hobetzeko **tresna zehatzak**.

Gardentasunean aurrera egiteko material erabilgarriak

Etengabeko hobekuntzarantz aurrera egiteko asmoz, 2013ko urritik 2014ko martxora Sareko udaletan garatutako lan bateratuaren ondorioz, **"Udal Gardentasuna abian jartzeko eta kudeatzeko gida"** prestatu da. Bertan zehazten dira udalek Gardentasuna gauzatzeko eta iraunarazteko burutu behar dituzten jarduera zehatzak.



Gardentasunari buruzko estrategia zehaztu ondoren, Gardentasunari buruzko Lege berriak xedatutako betebeharrak eta epeen arabera, udalak burutu beharreko ekintzak planifikatzen errazteko **Gidaliburua**.

[UDAL GARDENTASUNA abian jartzeko eta kudeatzeko GIDA](#)

Albisteak

EUSKAL HERRI ADMINISTRAZIOAREN ETORKIZUNEN LEGEA

Euskal Herri Administrazioari buruzko Legearen Aurreproiektuko testua tramitatzen ari da, gobernatzeko moduaren hastapen berrietan oinarrituta: parte-hartzea, **gardentasuna** eta lankidetzeta.

Testuaren sorreran parte hartu eta berari ekarpenak egin ahal dizkiote euskal herri-erakundeek, besteak beste, EUDELeK, hiru Foru Aldundiak, enpresari-erakundeak nahiz sindikatuek eta, oro har, herritarrek.

Sektore Publikoaren funtzionamenduaren antolakuntza eguneratzea proposatu eta edozein herritarrek **langile funtzionarioen zein gobernu-egiturako goi-kargudunen ordainsaria** eta liberatu sindikalen lanorduen kostua ezagutu ahal izateko aukera eskaintzen du. Berrikuntza nagusien artean **euskal sektore publikoaren erakundeen erregistroa** sortzea dago. Horretan, herritarren esku jarriko dira goi-kargudunen izendapen eta kargugabetzei buruzko datuak, emandako dirulaguntzen zenbatekoa eta titularrak eta sozietate publikoen egoera ekonomikoa eta ondareak. Gainera, **enpresa publikoen ondasunen inbentarioa herritarren** esku ipiniko dute. Gainera, herritarrek dekretu eta erregelamenduak sortu ahal izango dituzte "**Herri erregelamendu-ekimena**" delakoaren bidez.

Euskal Herriko Administrazio Legearen Aurreproiektuari buruzko informazio gehiago:

[Euskal Herriko Administrazioari buruzko Legearen Aurreproiektuko Testua*](#)

* ***Euskal Herriko Administrazioari buruzko Legearen Proiektuaren [tramitazioa](#)***

*IREKIA: Euskal Herriko Administrazioari buruzko Legearen Proiektuari [Herritarrek egindako ekarpenak](#)

USTELKERIAK SORTUTAKO KEZKA GERO ETA HANDIAGOA DA

Europako Batzordeak pasa den otsailean **Europako Batasuneko ustelkeriari buruzko txostena argitaratu zuen**. Bertan nabarmendutakoaren arabera, Autonomia Erkidegoek eta udal erakundeek kontrol gutxi daukate eta gomendio-multzo bat sartu da, besteak beste, herri-administrazio guztietan Gardentasuna beren beregi sendotu beharri buruzkoa.

Hona hemen aipatutako gomendioak:

- **Tokiko eta eskualdeko kontrol handiagoa:** "Eskualde eta tokiko erakundeen neurriko estrategiak garatzea, eta horietarako alde aurretik ustelkeria egoteko arriskuari buruzko ebaluazioak egitea. Kontroleko mekanismoak indartzea, erabakiak hartzeko prozesua gardenagoa egitea eta tokiko nahiz eskualdeko gobernatzeko moduaren kalitatea koherentziaz ikuskatzen dela bermatzea".
- **Gardentasunari buruzko Legea sustatzea:** "Gardentasun, Informazioa jendaurrean jartze eta Gobernu Onari buruzko Lege berria ezartzeko behar den esparrua bermatzea, baita ikuskatzeko mekanismo independentea ere, zehapen disuasorioez osatutako sistema batekin lagunduta."



Europako Ustelkeriaren aurkako Estatu Taldeak (GRECO) ere bere laugarren txostenean Espainiako Erresuman ustelkeriari lotutako eskandaluen hazkundeagatik kezka azaldu zuen eta herri-erakunde politiko eta judizialetan konfiantza berreskuratzeko urratsak emateko deitu zien agintariei, herri-erakundeen independentzia hobetzeko 11 gomendioez baliatuta.

Informazio gehiago:

- * [Txosten osoa](#) (ingelesez, Gomendioak: 34-26 orrialdeak)
- * [Europako Batasuna – Ustelkeriaren aurkako borrokari buruzko 2014ko txostena](#)
- * [GRECOren laugarren txostena](#)

ENPRESA HANDIETAN GARDENTASUNA HOBETZEA

Europak enpresa handien gardentasuna gai sozialetan hobetzea erabaki du, horretarako araudi berria prestatuta. Haren bidez, politika, arrisku eta emaitzei buruzko informazioa bidali beharko dute, hurrengo alderdiei dagokienez: langileei lotutako ingurumen eta gizarteko gaiak; giza-eskubideen errespetua; ustelkeria eta eroskeriaren aurkako borroka eta administrazio-kontseiluen aniztasuna.

Araudi honek 500 pertsonatik gorako Europako 6.000 enpresatan edukiko luke eragina eta berria litzateke gardentasunari lotutako betekizunei buruzko araudirik oraindik ez duten herrialdeentzat soilik. Hori ez da hala gertatzen hurrengo estatuei dagokienez, dagoeneko gaiari buruzko legeria dutelako: Espainia (2011ko Ekonomia Iraunkorrari buruzko Legea), Erresuma Batua (2006 eta 2013), Suedia (2007), Danimarka (2011) eta Frantzia (2012).

IPAR -LEGEBILTZARREN GARDENTASUNARI BURUZKO INDIZEAREN- LEHENENGO EDIZIOA

Nazioarteko Gardentasuna Espainiako erakundeak IPAR -Legebiltzarren Gardentasunari buruzko Indizearen Lehenengo Edizioaren emaitzak argitaratu zituen martxoan. Indize horrek Espainiako hemeretzi Legebiltzarren (Kongresua, Senatua eta Autonomietako hamazazpi legebiltzarrak) gardentasun-maila neurtzen du.

Puntuazio onena lortutako legebiltzarra Kantabriakoa da eta, ondoren, Nafarroa eta Espainiako Senatua. Hiru Legebiltzar hauen puntuazioa 100etik 80 baino handiagoa izan da. Euskadiko Legebiltzarrak 67,5 puntu lortu zituen.

Informazio gehiago:


* [Legebiltzarren Gardentasun Indizea \(IPAR\)](#)
(Balorazio orokorra)

* [Legebiltzarren batez besteko puntuazioak Gardentasunaren sei arloetan](#)

**Esperientziak****EUSKADIKO UDALAK: HERRITARREKIKO HARREMANETARAKO BIDE BERRIAK**

Euskadiko Udalek herritarrekiko harremanetarako bideak hobetzeko lan egiten jarraitzen dute, orain dela gutxi abiarazi diren ekimenek adierazi bezala. Ekimen horiek gardentasun handiagoa eskaintzen saiatzen dira, informazioaren eta komunikazioaren teknologia berrietan oinarrituta.

Horretarako, udalek honako tresna hauek erabiltzen dituzte gehienbat: herritarrekin hitz egitea ahalbidetzen duten 2.0 foroak, Youtuben bideoak argitaratzea, herritarren proposamenak sakelako gailuetarako aplikazioen bidez geolokalizatzea edo Whatsapp.

**Informazio gehiago:**

* GETXO: [Herritarrek auzoei buruz gauzatzen duten parte-hartzearen gardentasuna](#)

* GUEÑES: [Herritarrekin hitz egitea ahalbidetzeko 2.0 foroak](#)

* ARRIGORRIAGA: [Alkatea udal aurrekontua azaltzen bistartzen duen bideoa](#)

* ELORRIO: [Udalerrian geolokalizatutako herritarren proposamenak argitaratzea](#)

* ZALLA: [Herritarrekin Whatsapp bidez komunikatzea](#)

* GALDAKAO: [Auzoetara hurbiltzea eta alkateak herritarrekin izandako zuzeneko elkarreragina](#)

EUSKADIKO UDALAK: GARDENTASUN HANDIAGOA INFORMAZIO EKONOMIKO-FINANTZARIOAN

Azken urtean, Euskadiko gero eta udal gehiagok ahaleginak egin dituzte, ekonomia eta finantza arloko informazioa argitaratzeko orduan, gardentasun handiagoa lortzeko. Kasu batzuetan informazio garrantzitsua argitaratzen hasi da lehenengo aldiz; beste kasu batzuetan, berriz, informazio grafikoagoa eta eskematikoagoa eskaintzearen alde egin da, herritarrek aurrekontuko informazioa hobeto uler dezaten.



Informazio gehiago ekimen garrantzitsu batzuei buruz:

- * **BILBO:** [Aurkezpen hobearen eta azalpen handiagoaren bidez aurrekontua hobeto ulertzea ahalbidetzen duen aplikazioa](#)
- * **BASAURI:** [Doan eta eskematikoki argitaratzen du zein diren udal aurrekontuaren egitura eta hori prestatzeko jarraitzen den prozesua](#)
- * **ERMUA:** [Informazio grafikoak udal aurrekontuari eta udal zorraren bilakaerari buruz](#)

GARDENTASUNARI BURUZKO WEBGUNEAK SALAMANCAKO UDALERRI TXIKIETAN

REGTSAk (Salamanca Aldundiko Diru-bilketa eta Zerga Kudeaketako Erakunde Autonomoa) plataforma bat diseinatu eta garatu du, Salamanca probintziako tokiko entitateen (batez ere, udalak, baina hiru mankomunitate ere badaude) gardentasun atarien ikuskera orokorra eta sailkapena ematen dituena. Tokiko entitate horiek gardenak izan nahi dute, baina ziur aski ezin izango lukete hori lortu, baliabiderik ez izateagatik. Udalerri bakoitzari buruzko informazioa Nazioarteko Gardentasunaren Udalen Gardentasun Indizearen (UGI) bidez egituratzen da.

Ayuntamiento	Puntuación	Detalles
Ayuntamiento de Aldeadávila de la Ribera 1364 habitantes www.aldeadavila.es	46	
Ayuntamiento de Doñinos de Salamanca 1851 habitantes www.ayto-doninos.com	46	
Ayuntamiento de Mieza 248 habitantes www.mieza.es	46	
Ayuntamiento de Pelabravo 1064 habitantes www.pelabravo.es	46	

Proiektuari buruzko informazio gehiago:

[Udaletako Gardentasun Atariak](#)

Ekitaldiak

“GARDENTASUNA ETA DATUEN BABESA” TAILERRA

Martxoaren 7an EUDELek eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoak (DBEB) **“Gardentasuna eta Datu pertsonalen babesa” tailerra** antolatu zuten. Haren edukiak hiru ardatz izan zituen: Gardentasunaren, Informazio Publikoa Eskuratzearen eta Gobernu Onaren estatuko Lege berria indarrean sartzeko tokiko entitateetarako dituen ondorioak, datu pertsonalak babesteko oinarrizko eskubidearekin duen lotura, eta legeen arteko balizko aurkakotasuna eta interpretazio-zailtasunak.



Informazio gehiago:

* [DBEBren aurkezpena](#)

EUSKO JAURLARITZAREN GARDENTASUNARI BURUZKO EREDUA SENATUAN AURKEZTEA

Jaurlaritzak bere Gardentasunari buruzko Eredua aurkeztu zuen urtarrilean Senatuan egindako **“Gardentasunari eta Gobernu Onari buruzko III. Foroa”**n. Bertan Gardentasun Legea behar bezala ez ezartzeak berekin dakartzan erronkak aztertu ziren.

Informazio gehiago:

* [Informazio hedatua \(Irekia\)](#)

* [Gardentasunari eta Gobernu Onari buruzko II. Foroko hitzaldiak](#). Horien artean Koldobike Uriarte Gardentasuneko eta Gobernu Oneko Berrikuntza Publikoko arduradunaren aurkezpena egon zen.



Hurrengo hitzorduak

“HIRI EREDU BERRI BATERANTZ” JARDUNALDIAK Ermuako Izarra Centre eraikinean, maiatzaren 5etik 9ra bitartean

Ermuko Udaleko Udal Garapenerako Atalak Toki Garapenerako Astearen 9. edizioa abiaraziko du, maiatzaren 5etik 9ra bitartean, “**Hiriaren eredu berri baterantz**” izenburupean. Jardunaldi horiek partekatzeko, ekiteko, ikasteko eta eztabaidatzeko guna izango dira.

Maiatzaren 5a, astelehena:
Gardentasuna eta Gobernu Ona sektore publikoan

Maiatzaren 8a, osteguna:
Herritarren parte-hartzea eta hiri adimendunak

Informazio gehiago:

http://www.ermua.es/programa_semana_desarrollo_local_2014_Ermua.pdf



HERRI ADMINISTRAZIOEN KUDEAKETAREN BIKAINASUNARI BURUZKO V. BILTZARRA

2014ko maiatzaren 22an eta 23an “**Herri Administrazioen Kudeaketaren Bikaintasunari buruzko V. Biltzarra**” egingo da Gasteizko Villa-Suso jauregian, foro hori Herri Administrazioen kudeaketaren Bikaintasunari buruzko esperientziak eta metodologiak partekatzeko estatuko erreferentzia bihurtzeko asmoz.



Informazio gehiago:

* [Herri Administrazioen Bikaintasunari buruzko V. Biltzarra.](#)

MINTEGIA: "HERRITARREKIN KOMUNIKATZEA ETA EUROPAN NAHIZ BERE ESTATUETAN ERALDATUTAKO SEKTORE PUBLIKOAN KONFIANTZA BERREZARTZEA"

Herri Administrazioaren Europako Institutua–EIPAK “**Herritarrekin komunikatzea eta European nahiz bere estatuetan eraldatutako sektore publikoan konfiantza berrezartzea**” mintegia antolatuko du Maastrichten, uztailaren 7an eta 8an.

Informazio gehiago:



* [Herritarrekin komunikatzea eta European nahiz bere estatuetan eraldatutako sektore publikoan konfiantza berrezartzea](#) (ingelesez)

DEMOKRAZIAREN MUNDUKO FOROA ETA EUROPAKO KONTSEILUAREN TOKIKO DEMOKRAZIAREN ASTEA

Europako Kontseiluak **Demokraziaren Munduko Foroa** antolatuko du azaroaren 3tik 5era bitartean. 2014ko edizioaren gaia Gazteria izango da.

Informazio gehiago:

* [Demokraziaren Munduko Foroa](#) (ingelesez)



Halaber, **Tokiko Demokraziaren Asteak** (urriaren 14tik 20ra bitartean) arreta berezia jarriko du Gazterian, eta "Partaidetzazko Demokrazia: proposatu eta erabaki" goiburua izango du.

Informazio gehiago:

* [Tokiko Demokraziaren Astea](#) (ingelesez)

Argitalpenak (nazioartekoak)

"GOBERNU PLAN IREKIA" GIDA. CEPAL- NAZIO BATUAK

Argitalpena: 2014ko martxoa

"Ibilbide orria eskualdeko gobernuetarako"

Agiri horren helburua eskualdeko herrialdeei ekintza planak prestatzen eta egiten laguntzea da, demokrazia handiagoa eta hobe lortzeko asmoz. Horretarako, erakundeek eta gobernu organoen zein horien eta herritarren arteko lankidetzak aktiboak bultzatuko da maila guztietan. Gida Nazio Batuen Latinoamerikarako eta Kariberako Ekonomia Batzordeak egin du.



Gaiak:

- ✓ **Gobernu elektronikotik gobernu irekira:** Gobernu irekiaren plana, erreferentzia orokorreko esparrua: Gobernu Irekirako Ituna (*Open Government Partnership*), Gobernu irekiaren gida (*Open Government Guide*), eta Gobernu irekiaren estandarrak.
- ✓ **SMART ikuspegia:** estrategia bat sortzeko gutxieneko irizpideak
- ✓ **Kontsulta publikoaren prozesua eta herritarren parte-hartzea** ekintza plana prestatzean
- ✓ **Gobernuen datuak zabaltzea: gomendio batzuk,** nazioarteko esperientzia, barneko prozesuak berrantolatzea, datuak identifikatu eta hautatzea, berriro erabil daitezkeen datuak, lotutako datuak (linked data).

Informazio gehiago:

[Pdf-ko dokumentua](#)